LECTURA MANIFESTACIÓN 11N

Hoy Ezkerraldea ha demostrado que no está dispuesta a resignarse.

Zorionak Ezkerraldea! Zorionak Barakaldo!

Durante semanas hemos llenado nuestros barrios, nuestros pueblos y nuestros centros de trabajo de carteles, mesas informativas, asambleas y espacios de encuentro. Hemos hablado con nuestras vecinas, con nuestras compañeras y con nuestras familias. Hemos construido esta huelga entre muchas y desde abajo.

Hoy miles de personas hemos salido a las calles y hemos demostrado algo fundamental: cuando la clase trabajadora se organiza, tiene fuerza; fuerza para cambiar las cosas..

Porque nos dijeron que era imposible cambiar nada. Nos dijeron que había que resignarse a los alquileres abusivos, aceptar los desahucios y asumir como normal dedicar media vida a pagar una vivienda.

Nos dijeron que era normal trabajar más y vivir peor. Nos dijeron que había que acostumbrarse a vivir con el miedo constante a perder el hogar mientras nuestros salarios permanecen estancados y otros siguen enriqueciéndose a costa de nuestras necesidades más básicas.

¡Se acabó!

Se acabó aceptar como normal lo que es injusto. Se acabó resignarnos. Se acabó callar.

Porque nada de esto es normal.

Y porque todo esto tiene responsables.

Los rentistas. Los especuladores. Los fondos de inversión. La patronal. Y quienes desde las instituciones han protegido el negocio de unos pocos por encima de los derechos de la mayoría.

Porque lo que vivimos tiene un nombre: violencia.

Violencia es no saber si el mes que viene podrás seguir viviendo en tu casa.

Violencia es dedicar la mitad del salario a pagar un alquiler.

Violencia es vivir con el miedo permanente a no poder llegar a fin de mes.

Violencia es crecer en una habitación porque tu familia no puede acceder a una vivienda digna.

Violencia es que miles de jóvenes no puedan emanciparse ni construir un proyecto de vida autónomo.

Violencia es que muchísimas mujeres tengan que permanecer en entornos donde sufren maltrato porque no tienen ni cómo ni a dónde ir.

Violencia es el racismo que sufren tantas personas a las que se les cierran puertas por su origen, su apellido o el color de su piel.

Violencia es que existan miles de viviendas vacías mientras hay familias sin hogar.

Violencia es que miles de personas vivan con incertidumbre, miedo y precariedad mientras la vivienda se utiliza para especular.

Violencia es la pobreza.

Violencia es la exclusión.

Violencia es convertir una necesidad básica en una mercancía.

Nos hablan de legalidad mientras permiten miles de viviendas vacías.

Nos hablan de convivencia mientras condenan a familias enteras al hacinamiento.

Nos hablan de orden mientras ejecutan desahucios.

Pero el verdadero desorden es un sistema que convierte la vivienda en un negocio.

El verdadero desorden es una sociedad donde la gente tiene miedo a perder su hogar.

El verdadero desorden es la pobreza, la exclusión y la violencia que generan sus políticas.

La mayor violencia no es cómo sobrevive la gente. La mayor violencia es que haya personas obligadas a sobrevivir así.

El verdadero problema es que haya personas sin casa y casas sin gente.

El verdadero problema es que haya familias hacinadas en habitaciones.

El verdadero problema es que después de un desahucio la única alternativa sea una pensión, una habitación o la calle.

Cuando el sistema niega derechos básicos, sobrevivir nunca puede ser un delito.

Hoy no termina nada.

Hoy demostramos que cuando la clase trabajadora se organiza es capaz de hacerse escuchar.

Frente a quienes especulan, organización.

Frente a quienes nos empobrecen, lucha colectiva.

Frente a quienes quieren que nos resignemos, más movilización.

Porque la vivienda no es un negocio.

Es un derecho.

Porque nuestras vidas valen más que sus beneficios.

Porque Ezkerraldea no se vende.

Y porque la fuerza organizada de la clase trabajadora sigue siendo la única capaz de enfrentarse al rentismo, a la especulación y a todas las violencias que pretenden condenarnos a una vida sin derechos.

Gora langileon borroka!

Gora Greba Orokorra!

COMITÉ DE HUELGA EZKERRALDEA. CGT-CNT Y COLECTIVOS SOCIALES DE EZKERRALDEA.

AZAROAK 11KO MANIFESTAZIOAREN IRAKURKETA

Gaur Ezkerraldeak argi utzi du ez dagoela amore emateko prest.

Zorionak Ezkerraldea! Zorionak Barakaldo!

Aste luzez gure auzoak, herriak eta lantokiak kartelez, informazio mahaiez, asanbladez eta elkargunez bete ditugu. Gure auzokideekin, lankideekin eta familiekin hitz egin dugu. Greba hau guztion artean eta behetik gora eraiki dugu.

Gaur milaka pertsona atera gara kalera, eta funtsezko zerbait erakutsi dugu: langile klasea antolatzen denean, indarra dauka; gauzak aldatzeko indarra.

Esan ziguten ezinezkoa zela ezer aldatzea.

Esan ziguten alokairu abusiboetara ohitu behar ginela.

Esan ziguten etxegabetzeak onartu behar genituela.

Esan ziguten normala dela bizitza erdia etxebizitza bat ordaintzen ematea.

Esan ziguten normala dela gero eta gehiago lan egitea eta gero eta okerrago bizitzea.

Esan ziguten etxea galtzeko beldurrarekin bizitzen ikasi behar genuela.

Esan ziguten gure soldatak geldirik dauden bitartean beste batzuk gure oinarrizko beharren kontura aberasten jarraitzea normala dela.

Aski da!

Aski da bidegabea dena normaltzat hartzea.

Aski da etsitzea.

Aski da isiltzea.

Hau guztia ez baita normala.

Eta, gainera, baditu arduradunak.

Errentistak.

Espekulatzaileak.

Inbertsio funtsak.

Patronala.

Eta gutxi batzuen negozioa gehiengoaren eskubideen gainetik babestu duten erakundeak.

Guk bizi dugunak izen bat dauka: **indarkeria.**

Indarkeria da datorren hilabetean zure etxean bizitzen jarraitu ahal izango duzun ez jakitea.

Indarkeria da soldataren erdia alokairua ordaintzeko erabiltzea.

Indarkeria da hilaren amaierara iritsiko ote zaren jakin gabe bizitzea.

Indarkeria da zure familiak etxebizitza duin bat eskuratu ezin duelako logela batean haztea.

Indarkeria da milaka gaztek ezin emantzipatzea eta bizi proiektu propio bat eraikitzeko aukerarik ez izatea.

Indarkeria da emakume askok tratu txarrak jasaten dituzten inguruneetan jarraitu behar izatea, ez dutelako nora joan.

Indarkeria da hainbeste pertsonak pairatzen duten arrazakeria, jatorriagatik, abizenagatik edo azalaren koloreagatik ateak ixten dizkietenean.

Indarkeria da milaka etxebizitza huts egotea familia asko etxerik gabe dauden bitartean.

Indarkeria da milaka pertsona ziurgabetasunean, beldurrean eta prekaritatean bizitzea, etxebizitza espekulaziorako erabiltzen den bitartean.

Indarkeria da pobrezia.

Indarkeria da bazterketa.

Indarkeria da oinarrizko behar bat merkantzia bihurtzea.

Legez hitz egiten digute milaka etxebizitza huts onartzen dituzten bitartean.

Bizikidetzaz hitz egiten digute familia osoak pilatuta bizitzera kondenatzen dituzten bitartean.

Ordenaz hitz egiten digute etxegabetzeak gauzatzen dituzten bitartean.

Baina benetako desordena etxebizitza negozio bihurtzen duen sistema da.

Benetako desordena jendea etxea galtzeko beldurrez bizitzea da.

Benetako desordena haien politikek sortzen duten pobrezia, bazterketa eta indarkeria dira.

Indarkeriarik handiena ez da jendeak bizirauteko nola egiten duen.

Indarkeriarik handiena da pertsonak horrela bizirautera behartuta egotea.

Benetako arazoa ez da jendeak nola bizirauten duen.

Benetako arazoa da pertsonak etxerik gabe egotea eta etxeak jenderik gabe egotea.

Benetako arazoa da familia osoak logeletan pilatuta bizitzea.

Benetako arazoa da etxegabetze baten ondoren alternatiba bakarra pentsio bat, logela bat edo kalea izatea.

Sistemak oinarrizko eskubideak ukatzen dituenean, bizirautea ezin da inoiz delitua izan.

Gaur ez da ezer amaitzen.

Gaur erakutsi dugu langile klasea antolatzen denean entzunarazteko gai dela.

Espekulatzaileen aurrean, antolakuntza.

Pobretzen gaituztenen aurrean, borroka kolektiboa.

Etsi gaitezen nahi dutenen aurrean, mobilizazio gehiago.

Etxebizitza ez delako negozio bat.

Eskubide bat da.

Gure bizitzek haien irabaziek baino gehiago balio dutelako.

Ezkerraldea ez dago salgai.

Eta langile klasearen indar antolatua delako errentismoari, espekulazioari eta eskubiderik gabeko bizitza batera kondenatu nahi gaituzten indarkeria guztiei aurre egiteko gai den tresna bakarra.

Gora langileon borroka!

Gora Greba Orokorra!

Ezkerraldeko Greba Komitea
CGT-CNT eta Ezkerraldeko kolektibo sozialak